

OÑATIKO ESKOLA KIROLA

2018-19 IKASTURTEA



KIROLARI GAZTEEN ESKUBIDEAK

- Kirol ekintza hezigarrietan parte-hartzeko eskubidea.
- Kirol jardueratan jokatzeko eta ondo pasatzeko eskubidea.
- Haur bakoitzaren heldutasun eta gaitasun mailarekin bat datorren lehiaketetan parte hartzeko eskubidea.
- Duintasunez tratatua izateko eskubidea.
- Profesional adituek entrenatua izateko eskubidea (edo hauen gainbegiratuaz).
- Kalitatezko trebakuntza jasotzeko eskubidea, bai bere nortasunaren garapen egoki baterako; bai bere mugimendu gaitasun garapenerako.
- Jarduera praktikoa, seguru eta osasuntsua garatzeko eskubidea.
- Bere adina eta heldutasun mailari dagokion iritzia eman eta erabakiak hartzeko eskubidea.
- Txapeldun ez izateko eskubidea.
- Denbora askea izateko eskubidea.
- Kirol ekintzak euskaraz burutzeko eskubidea.
- Mota guztietako kirol modalitateak ezagutzeko eskubidea.

OÑATIKO ESKOLA KIROLEKO HELBURUAK

Kirola: Haurren maila edozein izanda ere kirol desberdinak ezagutu eta praktikatzeko aukera ematea eta haur bakoitzak bere neurrian kirol trebetasuna hobetzea.

Euskara: Euskararen erabilera sustatzea kirolaren bidez eskolatik kanpo.

Hezkuntza: Kirolaren bidez baloreetan hezteak.

OBJETIVOS DEL DEPORTE ESCOLAR OÑATIARRA

Deporte: Ofrecer la posibilidad de conocer y practicar diferentes modalidades deportivas, independientemente del nivel de cada alumno/a, así como la mejora personal de la actividad deportiva de cada niño/a.

Euskera: Promocionar el uso del euskera a través del deporte, fuera del horario escolar.

Educación: Fomentar diversos valores por medio del deporte.

JOKABIDE ARAUTEGIA JOKALARIANTZAT

- Dasta ezazu kirola. Zeuk egin beharreko gauza da.
- Arauei jarraitu.
- Arbitroak hartutako erabakiekin ez etorriarren bat, utzi ezaiozu bere lanean aritzen
- Joka ezazu garbi edozein kiroletan; errespetatu besteak, ez zirikatu, ez harrotu irabazten baduzu,...
- Egiten duzun lana guztien onerako izango da.
- Aintzakotzat hartu taldekideek zein beste taldeko jokalarien jokaldi onak eta ahalegina.
- Gogoan izan zeuk merezi duzun errespetoa besteek ere merezi dutela.
- Arduraduna denok jolas ezazuen saiatuko da; horrela ezin denean gogoratu talde bat osatzen duzuela.
- Izan puntual.
- EZ BAZTERTU HIGIENE ohiturak:dutxatu, ekipamendu aproposa ekarri, ez utzi arroparik ahaztuta eta gauzak galduta,.....
- Partida amaitzean zoriondu besteak, emaitza alde batera utzita: luzatu bostekoa.

GURASOENTZAT DEKALOGOA

Umeek ez dute jolasten jendea entretenitzeko, ezta garaile izateko ere; umeek ondo pasatzeko eta kirolaren bitartez hezten joateko jolasten dute.

Ez ezazu hori inoiz ahaztu!

- Parte hartzaile guztien ahaleginak txalotu itzazu. Emaitza ez da garrantzitsuena.
- Hutsegiteengatik ez iezaiezu garrasirik egin; Ikasten ari dira! Diozun guztia positiboa izan dadila, motibagarria.
- Jardueran errespetuz parte har dezatela (ikasleak, entrenatzaileak, arbitroak eta jendea). Guztiak beharrezkoak ditugu!
- Zuk zeuk jakingo duzu zer egin behar duten, baina ez itzazu "telebideratu" zer egin behar duten esanez. Eman iezaiezu jardueraz gozatzeko eta erabakiak hartzeko askatasuna!
- Arbitroen erabakiak errespetatu itzazu eta umeek hori egitera, eta ezarritako araudiaren arabera jokatzeko animatu itzazu.
- Aurre egin iezaiezu jendeak edota edozein parte hartzailek sortutako edozein motako indarkeriei edo jarrera ezegokiei.
- Jarduerari amaiera ematerakoan **balora ezazu** benetan garrantzia duena, hau da, **haur bakoitzaren hobekuntza**, eta ez lortutako emaitza.
- Gainontzeko ikusleek arau hauek bete ditzaten ahaleginak egin itzazu, era horretara jarduera denentzat onuragarriagoa izan dadila lortuko duzu.

Ez ezazu inoiz ahaztu zeure portaera zeure seme-alabentzako eredu izango denik, eta batez ere benetako protagonistak eurak direla

BESTE ARAU BATZUK

PARTIDEN IRAUPENA ETA TALDEKO ALDAKETAK

- Partida bakoitza 10 minutuko 4 zatitan banatzen da.
- Lehen hiru zatietan ezin da aldaketarik egin, beraz, lehen zatian bostek jokatu dute, bigarrenan beste bostek, hirugarrenean ere beste bostek eta azken zatian nahi bestek. Jokalari guztiek denbora berdina jolasten saiatu beharko gara.
- Taldean 10 taldekide baino gehiago badaude partidaren momentuan aldaketak nahi direnean egin daitezke, lau zatietan, beti ere, guztiek denbora berdina jokatuz.

TALDEKIDE KOPURUA

- Partida jokatzeko orduan talde batean jokalaria nahikorik ez badago, horrela jokatuko da.
- 3. eta 4. mailetan taldeak nahastuko dira (ikasturtean 2 aldiz).
- 5. eta 6. mailetan ezarritako minimoak betetzen ez badira, taldeak nahastuko dira eta talde horrek partida galduko du.
- Minimoak: eskubaloian, saskibaloia eta areto futboleant 4 jokalaria eta 8ko futboleant 6 jokalaria.

ATEZAINAK

- Partidako zati bakoitzean atezain batek jokatuko du, beraz guztira 4 jokalarik jokatu beharko dute atezain bezala.
- Arau hau betetzen ez duen taldeak abisua jasoko du eta errepikatzen bada partida galdutzat emango zaio.

JARRERA DESEGOKIAK

- Jokalari batek jarrera desegokia izaten badu, epaileak, entrenatzaileak edota koordinatzaileak denbora tarte baterako kanporatu dezake; esaterako 2 minutuz. Kasu horretan, bere taldekide batek ordezkatuko du.

LANGAK

ARETO FUTBOLA

Maila denetan:

- langarik ez
- area handixa

ESKUBALOIA

- **3. 4. eta 5. LH neskek:** LANGA BAI / AREA TXIKITUTA
- **5. LH mutilak:** LANGA BAI / AREA HANDIA
- **6. LH:** LANGA EZ / AREA HANDIXA
- **6. LH (Gipuzkoako txapelketa):** LANGA BAI / AREA TXIKIA

EMAITZETAN DESADOSTASUNAK

- 2 entrenatzaileen emaitzak berdinak direnean eta epailearena desberdina, kontutan izan beharreko emaitza entrenatzaileena da.
- Entrenatzaile bat eta epaileak emaitza berdina baldin badute, beraien emaitza izango da, kontutan hartu beharrekoa.
- 3 emaitzak ezberdinak direnean, epailearena izango da kontutan hartu beharreko emaitza.



OÑATIKO ESKOLA KIROLA

EPAILE LANAK



BALIO HEZKUNTZAREN TRATAERA

Epailerik gabe ez dago partidurik,
epailearekiko errespetua
beharrezkoa da.


Taldekiddeen arteko errespetua
bermatzeko.

BALIO HEZKUNTZA ETA IKASKUNTZAREN TRATAERA

- **Partiduan zehar edozein jokabide desegoki ikusten badugu, berau bideratu:**
 - Agresio fisiko edo berbalen bat eman bada; Partidoa geratu eta entrenatzaileari jokalaria aldatzeko eskatu. Partidu amaieran txartel horia erakutsiko dugu
 - Zerbait zatarra ikusten badugu, laguntasun falta, barreren bat...Jokalariarengana joan eta jokabide hori ez dagoela ondo adierazi, berriz egingo balu partidua geratuko dela adieraziz. Errepikatzen ez bada partidu amaieran berdea erakutsiko dugu eta partidu bukaeran berriz ere jokalariarekin hitz egingo dugu
- **Partiduan zehar nola pitatu?**
 - Segurtasun osoz, ozen pitatu.
 - Pitatutakoaren inguruko azalpena eman BETI.
 - Hezitzaileak garela inoiz ez ahaztu, partidua ere ikasteko dira.
 - Ez pitatu den dena...Adibidez 4 pausu ematen baditu, lehenengoan abisua eman eta hurrengoan pitatu...
 - Neurtu, orekatu, ez gaitezen egon partidu guztia geratzen...

BALIO HEZKUNTZAREN TRATAERA

PROZEDURA BERAZ ONDORENGOA
IZANGO DA:



PUNTUAK NOLA EMAN?

- 1** **Taldeko asistentzia:** Kontutan hartuko da taldeak zapatuetan izan duen asistentzia, horretarako puntuaketa sistema hau jarraituko da;

Asistentzia %80 edo haundiagoa bada	3 puntu
Asistentzia %60 eta %80 bitartekoa bada	2 puntu
Asistentzia %60 eta %50 bitartekoa bada	1 puntu
Asistentzia %50 baino txikiagoa bada	0 puntu

- 2** Partiduetako emaitza: 3 irabazi, 2 berdindu, 1 galdu.

- 3** **Taldeko jarrera:** Kiroltasuna eta errespetuzko jokabideak bideratu nahi dira, talde osoak partiduen amaieran txartel kolore bat lortuko du.

Txartel berdea	Jokabide egokiak, ez da egon inolako agresiorik ez berbalik ezta fisikorik ere eta jokabide guztiak errespetuzkoak izan dira	3 puntu
Txartel horia	Jokabide desegokiren bat agertu da eta hurrengo jardunaldietarako hobetu beharra dago. Errespetu faltaren bat kide, entrenatzaile edo epailearekiko	1 puntu
Txartel beltza	Jokabide desegokia egon da. Agresio fisiko, berbal edo kiroltasun eza agerikoa eta errepikatua izan da.	0 puntu